

XVIII. MENDEKO AMODIOZKO GUTUN BAT

Patri Urkizu

Baionako Euskal Erakustegiko liburutegi ederrean badira euskaraz eskuzkiribu anitz itzalean, argitara plazaratzeko zain daudenak. Hauen artean pastoralak, kanta bildumak, erlijiozko itzulpenak, hiztegiak, etabar. Pastoralen artean bada bat, Fond Campan-Latsague deitu sailaren barnean, zeina 1926. urtean Campan-Latsague andereak opari bezala eskaini zion Euskal Erakustegiari, eta, hain zuzen ere, Sainte-Ursule eta Saint- Zozime ermitauen bizitzaz diharduena. Honek badu bertsoen artean hitz lauz idatzirikako gutun bat, pastorageile berarena ziurren eta bere maiteari zuzendua.

Ene uste apalez, XVIII. mendeko bigarren partekoa da, ezen Pierre Darhez kordoigileak Larrañen 1760. urteko ekainaren 25ean errejentatu zuen Jean de Paris pasterala bezala sail berean aurkitzen baita, paper eta idazki berdintsuez izkiribatua. Egilearen izena, Erramon Ellissalt da, gamerearra eta idatzi zuenaren transkripzioa hauxe da:

Ene maytia

*Ezteçaçula ouste ukhen bayte canbiamentu
Enequi ez eta ere ene amourio esquacez
egon niçala çouri arraposturiq eguin gabe
Bena behar duçu jaquin letera eguinez
gueroz chacolat eniellâ icoussi ahal ukhen ceren
ta jouan [...] beiticitadan
pastoual moustra baten eguitera eta esquierqui
nahi letera houra eman ene etchecouer harc
emaiteko beldurez cerbait galtatcen etçacola*

hori cella causa egon niz hanix phenarequi
oray artinoco denboran
Beste alde behar duçu jaquin egon niçala oray artino
ounxa bidage bat eguin nahiriq çoure etcherat
Bena gure ocupacioniaq diela causa
enuçu gin ahal ičan bassignanian jouan fite, Bena oray
badit hain
arargret handia ene desirequin bihotcian
non espayneite [...] gin gabe
çoure icoustera. Ta hiz eman badeyçut
eztudala manquaturen giteriq [...] gayan
edo iraorguian araxian gitiaz çoure icoustera
eta haur ounxa çoure ayta eta amaren (Amaiera)

Irakur dezakezuenez fotokopian ez da batere erraza irakurtzea gutun hau, dudak eta ezin irakurriak maiz gertatu zaizkigularik. Pastoralaren errejenta edo kopiatzailea bederen eskuzkiribuko zinadura batek adierazten duen bezala Erramon d'Ellissalt de Camou izan zen. Honek "pastoualmoustra"ren antolaketa emango du aitzakitzat maitearen amodio eskatzeari erantzun azkarragoaren ezaz, eta gurasoen bildur, izkutuan eta gaez edo ilargiarekin prestatzen du hurrengo ikustaldia...

Ez dut uste euskal izkiribu zaharren artean amodiozko gutunak oso ugariak direnik. Hau dela eta dakargu hona XVIII. mendeko xuberotar honena, horrelako bitxizaleei laket izanen zaielakoan.